

# ALTZA PORRU!

2010eko iraila / 38. zenbakia

EHTE Allemendi 1, 20800 ZARAUTZ • TEL.: 943 83 28 28  
[www.trikitixa.net](http://www.trikitixa.net) / [www.trikimailua.com](http://www.trikimailua.com)



Euskal Herriko  
Trikitixa Elkartea  
L.G.: SS-418-01

## DANTZA IZANGO DUTE ARDATZ AURTENGO JARDUNALDIEK

Irailak berarekin dakartza euskal jaiak hainbat herritan, baita tartean Donostian ere. Eta Donostiako Euskal Jaien egitarauan berarekin dakartza azken urteotan **Inpernuko Poza** Trikitixaren Jardunaldiak. Urteroko funtsari eutsita, hausnarketarako tartea egin nahian, bi egunez arituko gara trikitixaren eta dantzaren inguruan.

“Inoizko dantzari gehien den garaian, plazetan zergatik egiten da inoiz baino dantza gutxiago?”. Sarritan planteatzen den galdera horri erantzuten saiatuko gara aurtengo jardunaldietan.

Maiz egokitzen zaigu, izan ere, trikitilarioi dantza emandaldi baten ondoren jo behar izatea. Dantzariak beren ikuskizuna bukatutakoan, kaleko arropak jantzi eta gehienetan begira geratzen dira. Emanaldia bukatutakoan ez dute batere dantzarik egiten. Non dago hutsartea?

Dantzaren eta plazen egoera aztertuta, galdera hauei erantzuten saiatuko gara. Horretarako, **mahai inguru eta saio praktiko bana prestatu ditugu.**

Irailaren 7an, asteartez, “**dantza, ikuskizuna eta plazerra**” izeneko mahai ingurua antolatu dugu. Mahai beraren bueltan jarrita arituko dira Ion Maia (dantzari profesionala), Jon Ostolaza (trikitilaria), Iñaki Irigoien (ikerlaria) eta moderatzaile lanetan Joxe Juan Ugalde (kazetaria eta dantzaria).

Irailaren 8an, asteazkenez, **dantzarako aukera** izango da. Plaza dantzen saio praktikoa izango dugu, gidari lanetan arituko den Jokin Otamendiren laguntzarekin. Arkaitz Minerrek eta Garikoitz Otamendik biolinarekin jotako doinuekin, Euskal Herriko dantza tradizionalaz gain, Europako zenbait dantza ere ikasi ahal izango dira.

**NON:** Donostiako Udal Liburutegiko Sotoan

**NOIZ:** Irailaren 7an eta 8an, arratsaldeko 19:30tan



## KALEAN DA FABOREZ 04



*Faborez* bildumako laugarren alea plazaratu du Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak. Aurreko diskoen funtsari eutsita, dokumentazioan oinarritutako lana da honokoa; trikitilarien aintzinako errepertorioan arakatu eta bilketa lan horren emaitza da esku artean duguna.

Aurreko diskoen formato bera dakar honek ere: lau bikotek dantzarako bosna pieza grabatu dituzte. Trikitilari bikote gazteei diskogintzan aritzeko aukera emateko helburuz kaleratzen du *Faborez* disko bilduma Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak.

Garai bateko erromeriatan, “faborez” esanez eskatzen zitzaion neskari dantzan egitea eta hortik datorkio disko bildumari izena.

Honoko bikoteek osatu dute *Faborez 04* lana:

**ANSORREGI ETA LARRAÑAGA.** Urola aldeko piezak bildu dituzte, besteak beste, Jauregi eta Sahatsetari ikasiak.

- Fandangoa
- Porrusalda
- Balsa
- Rantxera
- Fox

**LUTXURDIO ETA AITZIBER OTEGI.** Tomas Soraluze “Epelde”-ri ikasitako piezak jo dituzte nagusiki.

- Kalejira
- Ipar lañoa
- Ernaitza
- Tirolesa
- Joxe Elustondo

**PATXI AIORGA ETA JOSEBA ZABALO.** Juan Garate “Maltezeta”-rekin ikasi zuen Patxik soinua jotzen eta honek gus-toko zituen dantza loturako piezak bildu dituzte.

- Balsa
- Kitapenas
- Mazurka
- Tango Roso
- Fox

**ANDER ETA AINTZANE AGIRREBEÑA.** Eugenio Ubera “Bergetxe” aitona soinujolea zuten Agirrebeña anai-arrabek eta hari entzundakoeekin batera, etxean tradizioz kantatu dituztenak ere ekarri dituzte disko honetara.

- Hegoaldeko izarra
- Bergetxe
- Maria Titilitaña
- Pasodoblea
- Maitasun bat

## TRIKILIKLIK: TRIKITIXAREN HISTORIA EUSKADI IRRATIAN



Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak eta Euskadi Irratiak elkarlanean ekoiztutako irratsaioa da Trikiliklik. Trikitixaren historia jasotzen duen saio hau uztailaz geroztik ari da emititzen Euskadi Irratia, larunbatetan, arratsaldeko 15:30tan.

Oihane Egurtzak gidatutako irratsaioa ordu erdiko hamar atalek osatuko dute. Udako programazioaren berrikuntzen artean kokatu dute irratsaioa eta emititu ahala, edukiak interneten zintzilikatzen ari dira [www.eitb.com](http://www.eitb.com) helbidean, Euskadi Irratiko audioen atalean.

Soinu txikia Euskal Herrira iritsi zenetik gaur arteko bilakaera atzertzen du saioak atalka: soinu-tresnaren egitura, panderoa, Elgeta, Maurizia, errepertorioa, erromeriak, debekuak... eta beste hainbat gai ardatz hartuta. Irailaren 11n emango du azken atala Euskadi Irratiak.

### AURKI, TRIKIMAILUAN

Udazkenean Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen [www.trikimailua.com](http://www.trikimailua.com) web gunean jarriko da Trikiliklik irratsaioa bere osotasunean. Norbere etxetik eta noznahi entzun ahal izango da modu honetan trikitixaren historia atalka.

## FABOREZ 04: AURKEZPEN ERROMERIA BERGARAN

Aurreko Faborezekin egin den moduan, erromeria baten bitartez aurkeztuko da laugarren ale hau ere. Bergaran ospatuko da aurkezpen erromeria irailaren 12an, igandez.

Diskoan parte hartu duten bikote guztiak entzuteko aukera izango da Bergarako erromerian. Aurreneko zatian, diskoan bildutako piezak joko dituzte txandaka eta, ondoren, bikote bakoitzak bere ohiko erromeriko errepertorioa joko du.

**NON:** Bergaran, San Martin plazan

**NOIZ:** Irailaren 12an, igandez, 18.00tan

## GOZATEGI: BIZI BIZIRIK

Haizeberririk dator Gozategiren seigarren diskoa: orain arte erabili gabeko haizezko musika-tresnen presentzia nabarmenarekin. Balea ekoiztetxera egin dute saltoa eta kolaboratzaileak ere berriak izan ditu taldeak. Asier Ercilla eta David Nanclaresen gidaritzapean grabatu dute diskoa eta inprobisazioari tarte bat utzi diotela nabarmendu dute taldekideek. "Beste batzuetan abestiak eginda ermaten genituen grabaketa gelara, baina oraingoan Asier eta Daviden gomendioei kasu egin eta inprobisazioari tarte bat utzita, egia esan, oso gustura geratu gara emaitzarekin". Ukitu berriekin bada ere, betiko umoreari eutsi dio Gozategik lan berri honetan.



## KORRONTZI: INFERNUKO HAUSPOA

CD eta DVD banaz osatutako lan bikoitza prestatzen ari da Korrontzi taldea. Billabonako Oinkari dantza taldearekin batera egiten ari diren biraren emaitza-gisa, musika eta koreografia berriak bilduko ditu *Infernuko hauspoa* lanak.

## JOSEBA TAPIA: ETA TIRA ETA TUNBA

Iljendurreko kontzertu pare baten ondotik, irailaren 15ean aurkeztuko du Joseba Tapiak disko berria. Karlisten eta liberalen arteko liskarrak oinarri hartuta dator Tapiaren bosgarren bakarkako lana. Aurrerapen gisa, *Karlistaren panparroikeriak* kantua entzungai dago [www.josebatapia.com](http://www.josebatapia.com) atarian.



## TRIKITILARI GAZTEEN TXAPELKETAK

Ate joka datorren Zarauzko txapelketaren oinarriekin batera, uda partean ospatu diren gainerako txapeldunen bilduma egin dugu.

**Getariako X. txapelketa: ekainak 5:** Monik Valor eta Eider Iraola

**Arroa Beheko Karmengo Jaietako II txapelketa:** Monik Valor eta Eider Iraola

**Oialumeko txapelketa: uztailak 8:** Ander Beldarrain eta Eneritz

**Zeanuriko XXX. Txapelketa: abuztuak 15:** Edurne Errandonea eta Ander Beldarrain

## TRIKITILARI GAZTEEN ZARAUZKO XXX. TXAPELKETA

**NON:** Zarauzko Zinema Pilotalekuan

**NOIZ:** Irailaren 6an, astelehenez, 22:00tan

## BIZKAIKO TRIKITIXA EGUNAREKIN POZIK



Maiatzaren 23an ospatu genuen Bizkaiko Trikitixa Eguna ezin hobeto joan zen bertara hurbildu ziren trikitilari eta zaletu guztiei esker. Bizkaiko leku ezberdinetatik heldu ziren Getxora (Getxo, Portugalete, Bilbo, Gernika, Mungia, Durango, Berriz, Barakaldo, Sopela, Plentzia, ...), baita Gipuzkoatik trikitixa eskola bat ere. Eguraldia ere lagun izan genuen 150 trikitilari bildu ziren festa honetan.

Trikitilariak eta zaletuak eguerdiko 12:00etan hasi ziren Getxora hurbiltzen eta jarraian auzo ezberdinetatik kalejirak hasi genituen. 14:30etan denok batu ginen Algortako Tella-gorri plazan, eta denon artean pare bat pieza jo eta argazki batzuk atera ondoren, Zabala eskolan prest geneukan bazka-

ria dastatzera abiatu ginen. Bazkalostean ere ez zen trikitixa doinurik falta izan, kantu eta dantzekin batera noski. Eguna bukatzeko *Triki ta ke* taldearekin erromeria izan genuen Algortako metroko plazan. Egun guztia jotzen ibili ondoren trikitixa eta panderoa albo batean utzi eta dantzan aritzeko aukera izan zuten parte hartzaileek. Hala ere, baten batek panderoa utzi nahi ez eta taldearekin batera oholza gainean aritu zen. Egon zen eurekin abestera ere animatu zenik.

Getxoko kaleak trikiti doinuekin alaitu ondoren, hurrengo urteko Trikitixa Egunean pentsatzen hasi gara dagoeneko.

- **Asier Gozategi** “Jendaurrean, telebistan... egon baino lehenago gogotik egin behar da lan. Nahiz eta musika egiteko prest egon, hau ez da *goizeko 10etatik 12etara kanta bat egingo diat* esatea. Inspirazio unea edo musika egiteko egonezina bilatu egin behar da. *Abesti hau txarra da* esatea errore handia da eta askotan egiten dugu. *Haunik ere egingo nuke...* baliteke, baina ez duzu egin. Deskalifikatu beharrean, ez dut gustuko edo ez dut ulertzen esaten jakin behar da”

(Karkara, 2010-06-04)

- **Xabi Solano:** “Oso harrিতuta gagoz, kontzertu guztietan jente piloa egoten da, gugaz kantetan... Oso pozik gagoz harrereagaz, joten dogun baktotxean plazea bete-beterik egoten da eta eskertuta gagoz jentearen erantzunagaz. Jantzearen kontua beste gauza bat da... Euskal Herriko publikoagaz, nabaria da, lekuaren eta orduaren arabera jantza gehiago ala gitxiago egiten da. Zenbat eta beranduago izan, orduan eta jantza gehiago egiten da eta lekuan argi asko badago, jantza gitxiago, jentea lotsatu egiten da, antza. Halanda be, guk, ezsenatokitik, segiduan jakiten dogu jentea gustora dagoan ala ez eta jenteak jantzan egitea ala ez ez deusku lar ardura, gustora dagozan bitartean”

(Bizkaie! agerkari digitala, 2010-08-19)

- **Euzkadiko taupadak** izeneko artikulua. (*Euskal musikaz* Diario del Alto Aragon *egunkiarian idatzitakoaren zati bat. Korrontzi taldea lberri@huesca.folk jaialdian jotzekoa zen aitzakian idatzia*). Euskal musikak ekarpen handia egin dio penintsulako folkari urteetan barrena. Mikel Laboatik Imanolera; Oskorri, Kepa Junkera, Oreka TX, Tomas San Miguel edota Tapia eta Leturiarengandik pasata, batzuk aipatzearen, nabarmendu egin dira musika tradizionalaren panoraman. Baina Korrontzik, euskal folk berriaren mamia ordezkatzeko du inolako dudarik gabe. Orain urte batzuk Huescako Sala Edén antzokian jo zuten eta ederki erakutsi zuten beren proposamen musikalaren indar eta bultzada.

## TRIKITIXA EDO ROCK

I. Arregik 1988an argitaratutako artikulua hau berreskuratu dugu. Urte hartako trikitixa txapelketa nagusian parte hartutako hainbat bikoteren lanarekin ez zen konforme. Trikitixa ez baino, rocka jo ote zuten aipatzen du artikuluan.

“Txapeldunak badakite ongi, berak jo dutena, ez dela trikitixa, bañan txapela jantziko bazan orrela jo bear zan. Bai jo ere eta Txapela irabazi. Zorionak? Bañan ez uzte uste trikitixa jotzen ez dakitenik. Gero sariak jasotzerakoan eskeini ziguten benetako trikitixa. Lotsagarria izango zen nunbait txapelketan trikitixa ori jotzea. Amabost txapelketa auetan oso gertutik ibili naiz, badaikit oso zaila dela nor oberena den aukeratzea. bainan oso erreza da zer jo bear duten jakitea: Trikitixa, porrusalda, eta abar. Nere ustez lau bikotek eman dio trikitiaren usaia; beste laurek berak jakingo dute zer jo duten, nik ez nioten ulertu ta. Makailu txapelketan ez da onartzen marmitakorik, bainan emen bai”.

## TOLOSAN IZANGO DA NAZIOARTEKO TRIKITIXA JAIALDIA

Nazioarteko Trikitixa Jaialdia tokiz aldatuko da aurten. Donostiatik Tolosara aldatuko da udazkeneko jaialdi hau. Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak 2002an ekin zion Nazioarteko Jaialdia anolatzeari eta Donostian ospatu izan da beti. Kursaal Jauregian izan ziren aurreneko edizioak eta Victoria Eugenia Antzokian azkeneko biak. Aurten, tokiz aldatzea erabaki da eta Tolosako Leidor Aretoan izango da datorren azaroaren 5ean.

